

HIRU HITZALDI OINARRI HARTUTA *EUSKAL HERRIA KRISIAN* LIBURUA KALERATU DU ELKARLANEAN ETXEAREN ESKUTIK

Joxe Azurmendi: «Erlatibismoan bizitzen ikasi behar dugu, ez dago beste aukerarik»

■ Joxe Azurmendik, *Euskal Herria krisian* saiakerarekin, gure artean inposatu nahi diren balio absolutuak salatzea du helburu

■ «Balio absolutuetan setatzen diren hainbat euskal intelektualen» aurka, erlatibismoaren defentsa egiten du pentsalari honek

■ «Tolerantziaren maisu intoleranteekin» polemizatzen du Azurmendik, «denok dakizkigunak» esanez


Lorea Agirre / Donostia

EUSKAL HERRIAK bizi duen krisia mendebaldeko kultura tradizionalak bizi duen krisi bera dela dio Joxe Azurmendi pentsalariak, postmodernitatea deitzen den horren gainbehera bera. «Apurtuta dago, baina, hala ere, erren-tetarik bizitzen jarraitzen dugu. Hondakinetatik bizi gara. Ez dago inola ere gogo-eta berri bat geroari begira».

Horregatik guztiagatik, Azurmendi erlatibismoaren alde dago. Erlatibismoaren defentsa da liburu kaleratu berri horren ardatza. «Nik uste dut erlatibismoan bizitzen ikasi behar dugula. Ez dagoela erlatibismoa beste posibilitaterik».

Onartzeak egiten ditu absolutu balioak

Erlatibismo hori balioen mailan defendatzen du Joxe Azurmendik, eta maila guztietan ikusten du beharrezko: etikoan, moralean, filosofikoan, ezagutzaren teoriarik, antropologian... «Balioak, berez, balioak dira, ez dira ez absolutuak, ez eta ez-absolutuak ere. Onarpen absolutu batek egiten du absolutu balio bat, ez beste ezerk. Baina gurean exijitu nahi dena zera da: balioak berez izan daitezela absolutuak, eta, beraz, guk onartu behar ditugu absolutuak direlako eta ez gure onarpenarekin absolutu egin daitezen». Horixe dago tranpa. Pentsakera horrek badu bere konprezioa errealitatean. «Esate baterako: *Ez duzu hilko* manamendua ez da absolutua, baina gure gizartearen obligazio bihurtzen da absolututzat har dezagun. Hor anekdota bat badago, oso argigarria. New Yorkeko Estatu Federalean garai batean dekalogo irakastea debekatu egin zuten —nahiz eta amerikarrak oso eskrupulosoak diren erlijioarekin—, estatuaren kontra doalako. Jakina, *Ez duzu hilko* aginduare-



PABLO S. QUIZA

Joxe Azurmendi, atzo, *Euskal Herria krisian* liburuaren aurkezpenean.

kin ez dago estatu bat eraikitzerik inoiz».

Benetako arazoaren funtsa honetan kokatzen du: «Nola lor dezakegu balio bat absolutu izatea, denek onar dezaten? Hori da arazo etikoa», baieztatu du Azurmendik.

Liburua polemikaren bihotzean kokatzen da, eta hainbat iritzi eta hainbat euskal intelektual ezagunen jarrera kritikatzeko du pentsalari zegamarrak. «Tolerantziaren

maisutza intoleranteekin polemizatzen dut. Nortzuk dira maisu horiek? Oraindik balio absolutu batzuetan setatzen direnak, balio absolutuen apostoluak. Absolututasun hori publikoki defendatzen denean, erran gabe doa, zeren balio absolutu pertsonalak denok dauzkagu eta horiek denak errespetatzen ditut nik. Baina balio absolutu publikoak eztabaidatzen ditut. Horregatik, liburuak

biolentziaren eztabaida bat agertzen du, eta baita biolentziaren kondanaren eztabaida ere. Eta baita abertzaletasunaren aurkako kritiken eztabaida ere». Kritika horiek, izan ere, ia beti forma politiko-moral bat hartzen dutela uste du: «moralazpi-marratuz, gainera». Adibide bat jartzen du: «Ezin exijitu daiteke mendebaldean indarkeria edonondik datorrela ere kondenatu beharra. Exijentzia hori exigentzia politiko bat da, bestea —ez norbera— izan dadin moral». Berrito tranpa.

Krisirik gabe, berritasunik ez

Abiapuntura itzuliz, liburuaren izenburuak aipatzen duen krisi hitzak azalpen bat behar duelakoan dago Azurmendi. «Krisi hitzak hemen ez du zentzu negatiborik, beti eman ohi zaion bezala, baina ezta positiborik ere. Gaztaro-krisia pertsona heldu bat bihurtzeko aukera izaten da. Krisitik pasatu gabe ez da

JOXE AZURMENDI Balioak

■■■ «Berez izan daitezela absolutu exijitzen zaigu, ez gure onarpenarekin absolutu egin daitezen»

Krisia

■■■ «*Euskal Herria krisian* egoteak esan nahi du aukera bat daukala bide berriak egiteko»

Eztabaida

■■■ «*Nire inpresioa da hemen isiltzen direnak esan besterik ez dudala egiten*»

inor pertsona heldu egiten. Krisirik gabe ez dago berritasunik. Zentzu horretan erabiltzen dut hemen krisi hitza. Euskal Herria krisian egoteak esan nahi du aukera bat daukala bide berriak egiteko, urrats berriak egiteko».

Beraz, krisi hori trantsizio politiko bat da. «Eta nahitaez oso nahasiak izaten dira garai horiek». Berpizkunde garaia ekarri du gogora. «Berrehun urte iraun zuen krisi horrek, eta orain bizi dugunak ehun bat urte badi-tuenez beste hainbeste pasatu beharko ditugulakoan nago». Izan ere, Euskal Herria krisian sartu zen mundu modernora egokitu behar izan zuenean, karlistadekin. «Eta ordudunik argi dago ez euskaldunok asmatu dugula eta ez espainiarrek asmatu dutela bien arteko harreman logiko samar bat izaten». Horra hor arazoaren muina.

Bistako dena esan baino ez

■ «EZ DA liburu politiko bat», adierazi zuen atzo kazetariaren aurrean Joxe Azurmendik. «Gogoeta liburu bat da. Antimorala modu batean, eskatzen zaigun moralaz delako moralaz, beste zerbait lortzeko tresna baizik. Hori da kontua». Bere iduriko bistakoena dena eta denok dakiguna baino ez du esaten. «Esaten dudana Eskozian esango

banu, ez litzateke ezer berria izango. Nire inpresioa da hemen isiltzen direnak baina kokote atzean denok dakizkigunak esan besterik ez dudala egiten». Arazoak halako mailara eramaten dira, arrazoiketa eraso zuzen bilakatzen dela. «Ez dago arrazoiketarik». Horra hor krisiaren beste alderdi bat: arrazoiketaren krisia.